

BATX2_ADMINISTRAZIO_ETA_KUDEAKETA_OINARRIAK_PROGRAMAZIO_LABURPENA

Irakaslea	IÑAKI SETOAIN	Maila	BATXILER 2	Ikasturtea	2021-22
-----------	---------------	-------	------------	------------	---------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Gaur egungo testuinguruan garrantzitsua da ideiak proiektu bihurtzeko ikasleek izan behar dituzten trebetasun eta abileziak bultzatzea; horretarako, sakon aztertu beharko dira negozio bat abiarazteko eta hura bideragarri egiteko aldagaiak.

Espanian, enpresaburuak ez dauka oso irudi sendoa eredu positibo gisa: jarduera arriskutsutzat jo da, eta tradizionalagoak diren beste batzuk baino esker txarragokotzat. Hala ere, aldaketak oso azkar eman dira, eta balioa eman zaie ideiak sortzeari eta martxan jartzeari, baita horrek bakoitzarentzat, gizartearentzat, ekonomiarentzat eta lanpostuen sorkuntzarentzat ekartzen dituen ondorio onuragarri buruz ere.

Gazte-gaztetatik bultzatu behar da ikastetxeetan espirtu ekintzailea; alabaina, ez dira enpresen kudeaketaren ikuspuntutik bakarrik planteatu behar; izan ere, kultura eta pentsatzeko modu bat da, beti baliosua izan daitekeena eguneroko bizimoduan eta lanbide jarduera guztietan.

Irakasgai honetan ahalegin berezia egiten da sorkuntzan eta berrikuntzaren espirituan moldatzeko eta egoerak konpontzeko hainbat inguruetan, baita akatsa modu positiboan baloratu eta hartzeak duen garrantzian ere. Irakasgaiak gogoeta pertsonalak eta arrazoien gainean hartutako erabakiak bultzatzen ditu, zein den ere azken emaitza; gainera, talde-lana indartzea du helburu, kideen arteko harreman bizia mantenduz proiektu partekatu bat garatzeko; informatika eta ikus-entzunezko tresnak erabiltzea ere helburu du, proiektuaren zabalkundeari begira

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Prezentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

Gaitasunak eraginkortasunez eskuratzeko eta curriculumean benetan txertatzeko, ikasleen gaitasun bat baino gehiago aldi berean lantzeko aukera emanen dieten ikaskuntza jarduera integratuak diseinatuko dira, ikasia errealitateari aplikatu diezaiozten.

Landuko diren gaitasunak legeak jasotzen dituenak dira; Hizkuntza komunikazioa, matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak, gaitasun digitala, ikasten ikastea, gaitasun sozial eta zibikoak, ekimena eta ekintzailtza, kontzientzia eta adierazpen kulturalak.

Informazio gehiagorako: <https://bon.navarra.es/eu/buletina/-/sumario/2015/127/> (3.orrialdea, 5. artikulua)

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK**BATX CURRICULUMA**

I blokea: Enpresa berrikuntza. Negozio ideia: Enpresa plana 1. unitate didaktikoa
II blokea: Enpresaren barreneko antolaketa. Forma juridikoak eta baliabideak: 2. Unitate didaktikoa
III blokea: Enpresa abian jartzeko dokumentazioa eta tramiteak: 3. Unitate didaktikoa
IV blokea: Hornikuntza plana: 4. Unitate didaktikoa
V blokea: Merkataritza kudeaketa eta marketinarena enpresan: 8. Unitate didaktikoa.
VI blokea: Giza-baliabideen kudeaketa: 5. Unitate didaktikoa
VII blokea: Enpresako kontabilitatearen kudeaketa: 6. Unitate didaktikoa
VIII blokea: Inbertsio eta finantzaketen beharren kudeaketa. Enpresaren bideragarritasuna: 7. Unitate didaktikoa
IX blokea: Negozio ideiarene garapena jendaurrean jartzea: 9 Unitate didaktikoa
 Nafarroako Hezkuntza Departamentuko *Skolae Berdin Bidean* programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK**BATX CURRICULUMA****UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA**

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
	1.- Enpresa berrikuntza. Negozio ideia: Enpresa plana		5.- Giza-baliabideen kudeaketa		7.- Inbertsio eta finantzaketen beharren kudeaketa. Enpresaren bideragarritasuna
	2.- Enpresaren barreneko antolaketa. Forma juridikoak eta baliabideak				8.- Merkataritza kudeaketa eta marketinarena enpresan
	3.- Enpresa abian jartzeko dokumentazioa eta tramiteak				9.- Negozio ideiarene garapena jendaurrean jartzea
	4.- Hornikuntza plana				

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Gai bakoitzaren **aurkezpena eta sarrera irakasleak** azalduko du; Materiala **klasean irakurri** eta aztertuko da. Horretarako ikasleek **ozenki** eta txandaka irakurriko dute. Horrek gainontzekoen **arreta** eskatuko du. Dudak denon aurrean aurkeztuko dira

- . AKO irakasle taldeak prestatutako eta itzulitako apunteak eta ariketak.
- . Bideoak, egunkariak, aldizkariak, Internet, ...
- . Moodle plataforma eta classroomeko gela birtualak

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Ebaluazio bakoitzeko nota kalkulatzeko pauso bat azterketen batez bestekoa egitea da. Azterketaren batean 3 baino gutxiago ateratzen bada, derrigorrez berreskuratu beharko da. 3 eta 4,5ren arteko nota ateratzen bada ebaluazioa gainditzeko batez bestekoa 5 edo gehiago izan behar da. Gertatu ezean zatia berreskuratu beharko da.

Portzentajeak:

- Azterketen puntuazioak notaren %90-a suposatuko du eta batez bestekoa eginez kalkulatu da.
- Klasean ikasgaia lantzeko eta euskaraz hitz egiteko erakusten den jarrera eta lana eta etxerako lanek notaren %10-a emanen dute. Jarrera ikasleei emanen zaien errubrikaren bidez baloratuko da. Ikasgaia gainditzeko, derrigorrezkoa izanen da atal honetan behintzat %5a eskuratzea.

TRESNAK EDO BALIABIDEAK

- 1.- Ikasle bakoitzak egiten duen **eguneroko lan eta jarreraren balorazioa** irakasleak egiten duen **etengabeko behaketa**
- 2.- **Azterketak**, beti ere, landutako kontzeptuei eta prozedurei lotuta
- 3.- Mugikorrak institutuan debekatuta daudenez, irakasleak jaso behar izanez gero puntu bat jaitsiko dio ikasleari ebaluazioan

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Froga guztietan landutako kontzeptuen inguruko kasu praktikoak eta ariketak agertuko dira. Ariketen balioa aldagarria izanen da eta eskatzen duten ahaleginaren arabera baloratuko dira.

Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ebaluazio bakoitzari dagozkion frogak gainditu ezean, asti izanez gero, notak eman baino lehenago errekuratzeko aukera emanen da. Astirik ez balego berreskuratzeko azterketa hurrengo ebaluaketan egingo litzateke.

Maiatzean gainditu gabeko zatien azken berreskurapen azterketa egiteko aukera izanen da.

Nahikotasuna gainditzen ez duten ikasleek, irakasleak zehaztuko duen Ez-ohiko azterketa egin behar izango dute. Nota %100-ko kalifikazioaren balioa izango da

KANPOKO EBALUAZIOA

Dagokien ikasgaien kasuan soilik

OHARRA: Aurreko guztia malgutasunez jarraituko den hasierako plangintza bat da. Kurtsoan zehar aldaketak egiteko beharra ikusten bada, egingo dira